

ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

Trans 2025 Despatologizazioaren Nazioarteko Eguna

Gaur, urriak 18, aurten ere Trans Pertsonen Despatologizazioaren aldeko Nazioarteko Eguna ospatuko dugu. Orain dela gutxi arte, transexualak "gaixotzat" hartu ziren, eta horrek sufrimendua, diskriminazioa eta oztopoak eragin zituen aske bizi ahal izateko. Hamarkadetan zehar, medikuntzak eta txosten medikoek zeregin erabakigarria izan zuten beren bizitzetan, trans izatea osasun mentaleko patologia gisa sailkatuta baitzegoen.

Osasunaren Mundu Erakundeak 2019an Gaixotasunen Nazioarteko Sailkapena (GNS-11) eguneratu zuenean, aldaketa historiko bat gertatu zen: «genero-inkongruentzia» nahasmendu mental gisa kategorizatu zen, eta sexu- eta ugalketa-osasunaren eremuan onartu zen. Urrats horrek funtsezko aurrerapena ezarri zuen trans pertsonen genero-aniztasuna eta duintasuna errespetatzeko.

Azken urteotan, aurrerapen garrantzitsuak egin dira arlo legal eta sozialean, hala nola Trans pertsonen berdintasun erreal eta eraginkorrerako eta LGBTBIQ+ pertsonen eskubideak bermatzeko 4/2023 Legea eta Euskal Autonomia Erkidegoan genero-identitateagatik ez baztertzeari buruzko otsailaren 15eko 4/2024 Legea onartu dira. Araudi horiek indartu egin dute patologizaziorik ezaren printzipioa, eta urrats sendoak egin dituzte trans pertsonen eskubideak aitortzeko.

Hala ere, oraindik ere ikusten dugu lorpen horiek zalantzan jartzen dituzten eta lortutako aurrerapenak lehengoratzten saiatzen diren gorroto-diskurtsoak eta berdintasunaren aurkako mugimenduak suspertzen direla. Transfobiak, diskriminazioak eta indarkeriak presente jarraitzen dute gure gizartean, eta trans pertsona askoren eguneroko bizitzari eragiten diote.

Horregatik guztiagatik, Berdindu Zerbitzu Publikoak dei argia eta irmoa egin nahi du: pertsona guztien artean diskriminaziorik gabeko gizarte bat eraikitzen jarraitu behar dugu, errespetua eta berdintasuna printzipio ukaezinak izango dituenak. Gorroto-diskurtsoek lekuri ez duten gizartea, transek, gizarteko gainerako pertsonak bezala, beren identitatearen arabera, duintasunez, segurtasunez eta askatasunez bizi ahal izan dezaten.

Transexualak Despatologizatzearen aldeko Nazioarteko Eguna ez da ospakizun hutsa: berdintasunaren eta justiziaren aldeko borroka jarraitzen duela gogorarazten du, eta ez dela inor seinalatu, zalantzan jarri edo mugatu behar, nor den kontuan hartuta.

Urriak 18

Trans 2025 Despatologizazioaren Nazioarteko Egunagatik Adierazpena



Gaur, urriak 18, Trans Pertsonen

Despatologizazioaren aldeko

Nazioarteko Eguna ospatuko dugu.

Trans pertsonak, pertsona transexualak
esateko beste modu bat da.

Despatologizatzea: pertsona bakoitza identifikatzen den ezaugarriak, jokaerak edo identitateak gaixotasuntzat edo nahasmen mentaltzat hartzeari uztea.

Egun honetan gogorarazi nahi dugu duela gutxi arte,
trans pertsonak gaixotzat hartzen zirela,
medikuntzak txosten medikoetan sailkatzen zituen
osasun mentaleko arazoak zituzten pertsona gisa.

Horrek sufrimendua, diskriminazioa
eta zailtasun handiak sortu zituen
trans pertsonak aske bizi ahal izateko.

2019an Osasunaren Mundu Erakundeak
Gaixotasunen Nazioarteko Sailkapena aldatu zuen,
eta trans pertsonak nahasmendu mentala dutela
irizteari utzi zion.

Onartu zuten trans pertsonen beharrak eta baldintzak
sexu- eta ugalketa-osasunarekin lotuta daudela,
ez osasun mentalekin.

Urrats hori oso garrantzitsua izan zen
trans pertsonen errespeturako eta duintasunerako.

Azken urteotan, trans pertsonen eskubideak
aitortzen laguntzen duten legeak ere sortu dira.
Lege horiek dira:

- Trans pertsonen benetako berdintasun eraginkorrerako eta **LGTBIQ+** pertsonen eskubideak ziurtatzeko 4/2023 Legea.

LGTBIQ+: Lesbiana, **G**ay, **T**ransexual,
Bisexual, **I**ntersexual, **Q**ueer eta
beste batzuen siglak dira.



berdindu

LGTBI EUSKAL ZERBITZUA



ONGIZATE, GAZTERIA ETA
ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA
DEPARTAMENTO DE BIENESTAR,
JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO

- Euskal Autonomia Erkidegoan **genero-identitateagatik** ez baztertzeko 4/2024 Legea.

Hala ere, gaur egun berriz agertu dira berdintasunaren aurka dauden taldeak eta trans pertsonen kolektiboarekiko gorroto-mezuak. Horrek gizarteari atzera pausoa eginarazi diezaioke orain arte lortutako aurrerapenetan.

Transfobiak, diskriminazioak eta indarkeriak presente jarraitzen dute gure gizartean, eta trans pertsona askori kalte egiten die eguneroko bizitzan.

Horregatik guztiagatik, Berdindutik pertsona guztien elkarlana eskatzen dugu errespetuan eta berdintasunean oinarritutako diskriminaziorik gabeko gizarte bat eraikitzen jarraitzeko.

Gorroto-diskurtsorik gabeko gizartea, trans pertsonak duintasunez, segurtasunez eta askatasunez bizi daitezkeen gizartea.

Trans Pertsonen Despatologizazioaren aldeko Nazioarteko Eguna ez da ospakizun hutsa. Egun honek gogorarazten digu berdintasunaren eta justiziaren alde borrokan jarraitu behar dugula, eta ez dela inor seinalatu, zalantzan jarri edo mugatu behar, nor den kontuan hartuta.

Genero-identitatea da pertsona batek nola identifikatzen duen bere burua, genitalak kontuan izan gabe. Adibidez, alua edo zakila duen. Pertsona batzuk gizon gorputzarekin jaio eta emakume sentitzen dira, eta alderantziz. Beste batzuk ez dira ez gizon ez emakume sentitzen.

Transfobia: trans pertsonen aurkako gutxiespena, beldurra edo gorrotoa.